

KALKUTAKO AMA TERESA

Aurtengo urriaren 19an, altaretara jaso izan da Kalkutako Teresa. Il eta sei urtera, Erromako Aita Santuak dohatsu izentatu dauanez, aspaldiko markak altaretako bidean ondu ditu emakume onek. Juan Pablo II. bere miresle zintzo bat dogunik, ezin ukatu.

Ogeigarren mendeak ezagutu izan dauan emakumerik garrantzitsuenetakoa dogu berau. Munduko emakumeak baditue motiboak arrotz sentitzeko olako emakume baten ondoan. Ez bakarrik andrazkoak, baita gizonezkook ere pozarren aurkitzen gara bere aurrean.



Bere irudia oso ezaguna egiten jaku. Iru zinta urdin trabeska dituen zapi zuriaz jantzita eta kurutze txikitxo bat ezkerreko sorbalda gainean, aurpegia tximurrez beterik eta irribarre goxoa ezpanetan eta beti oinutsik dituan emakume onen irudia, aspaldion oso biotzeko egin jaku. Olantxe agertuko da munduko aundikien eta kobazuloko errukarrien aurrean be. Bai Nobel saria jasotean eta bai bide ertzetako lepradunen zauriak osatzean be.

Artikulu onetan bere bizitzako gorabeera batzuk aipatu besterik ez dot egingo. Eta bigarren zatitxoan, ostera, bere mezua-ren oiñarri nagusienak izango ditut gogoan.

1. Bere bizitzako aipamen batzuk

Jatorriz eta odolez barne-barnetik albaniarra dogu. Naiz eta, bere jaioterria, gaur egun, Mazedoniako iriburua izan. Baiña ori indarraren erabakiz biurtu da eta ez historiariaren arabera. 1910eko abuztuaren 27an jaioko da Agnes Bajaxhiu, Scopje errian. Iru neba-arreba dira. Bi neska eta mutil bat. Diru aldetik famili onekoak. Aitak farmazia bat dauko errian eta gainera ohol salerosketan be jardungo dau. Eta amak etailertxo bat josten eta bordatzen lan egiteko. Naizta aita gazterik il, etxean ez dabe olako premiña gorririk ikusiko. Iru neba arrebei goi-mailako ikasketak egiteko aukera ez jake faltako. Nebeak Parisen egingo ditu ikasketa nagusiak eta aitzak, ostera, Vienan. Eta gure Agnesek, goi-mailako ikasketak egiteko orduan, monja sartzea erabakiko dau.

Amazortzi urte ditu monja sartzen danean baiña amabi urte eukazala sortu jakon biotz barnean misiolari izateko gogoia. Indiatik etorritako misiolari baten itzaldia entzun ondoren. Arrezkero barneko dei ori ortxe dago eta or amazortzi urte bete ondoren, itzi bertanbeera bere familia eta Irlandara doa ingles apur bat ikasteko eta andik bi ilebetera Indiara. Loretoko mojen Kongregazioa aukeratzen dau bere misiolari egarria ase-

tzeko. Gure artean Loretoko Kongregazio izenaz baino "irlandesak" deritxogun izenaz dira ezagunagoak. Oneekin nobizia zala, Teresa Lisieuxkoaren "Arima baten" liburua irakurtzen dau. Aho zabalik geratzen da, Frantziako karmeldar gaztearen bizitzaz. Eta berealaxe erabagiten dau bere izena aldatzea Lisieuxko santaren omenez. Eta aurrerantzean Teresa izango da bere izena eta ez bateoan artutako Agnes izena. Anekdotak au bein baino geiagotan gogoratuko deusku bere itzaldi eta idatzietan.

Amazortzi urte igaroko ditu Loretoko Kongregazioan. Ortxe egingo dau bere profesa eta bere zeregin aundiena irakasle bezela emongo dau. Kolegioko zuzendari be izango da. Ikasleak dirudunen seme-alabak dira. Pozik dago bere Kongregazioan eta bere irakasle zeregiñetan. Baina...

1.1 *Argia!, gauerdian*

Ogeita amasei urte ditu Teresak. Urtero bezela badoa trenez Darjeenlingera gogojardunak egitera. Eta gauerdian argi barri bat biztuten jako bere barnean. "Bokazioa bokazioan" diño berak. Itzi bertanbeera irakasle lanak eta andik aurrera guztiz pobreen arteko pobreenekin lan egitea erabakitzen dau. 1946ko irailaren 10a izango da gau distiratsu ori.

Berealaxe erizaintza ikasketak egiten saiatuko da. Ogeitamazortzi urtekin lortuko dau Erromatik Loretoko Kongregaziotik urtetea eta pobreenekin bat eginda bizi eta euron alde lan egitea. Hindu pobreen zapi zuria jantzi eta badoa Kalkutako txaboletara lepraz edo sidaz edo beste edozelako gaitzez jotako pertsonen bila. Pausu oneek emotean bildurgarritzko iluntasunak jasango ditu bere barnean. Olako momentu baten Jaunari Teresak egindako otoitzak, dardar jarten gaitu geu be.

1950-1960. amarkadan izugarritzko lana egingo dau pobreen arteko pobreenekin. Orra besteak beste bere ekinbide sonatuenak: Nirmal Hriday, il zorian aurkitzen diranen Etxea;

Shishu Bhavan, umezurtzen etxea; Shantinagar, lepradunen Errixka. Baita amarkada orretan sortuko dau “Karidadeko Misiolarien” Kongregazio barria bere ekinbide bikainenak aurrera ataratzeko asmotan.

Mundu guztia txundituta geratuko da Teresaren izugarritzko lan ederragaz. An eta emen saritua izango da. Baina saririk famatuena Bakearen Nobel saria izango da, 1979garren urtean. Sari au jaso eban egunean, Oslon emondako itzaldia oso sonatua izango da, benetan. Sari onek itzel lagunduko deutso munduan zear pobreen garrasia aldarrikatu eta kontzientziak apur bat bizteko arazo larri onen aurrean.

87 urtekin austuta emongo dau bere azken arnasa. Kalkutan bertan, 1997ko irailaren 5ean ilgo da. Indiako gobernuak, esker onez, estatu goi-mailako iletak egingo deutsoz. Bertako erlijio guztietako buru diranak be parte artuko dabe Ama Teresaren paregabeko lana eskertuz. Telebisten eta irrati bidez, miloika pertsonak, munduan zear, errespetuz jarraituko dabe ospakizun hunkigarri ori.

1.2. *Ama Teresaren mezua*

Ama Teresa ekintzaile porrokatua dogu. Bere mezua oiñarritzen da Bibliako testu oneetan:

“Gose nintzan, eta zuek jaten emon zeunsten; egarri nintzan, eta edaten emon zeunsten; arrotz nintzan, eta etxean artu ninduzuen; hilutzik nintzan, eta jantzi egin ninduzuen; gaixorik nengoan, eta bisitatzera etorri zineen; espetxean nengoan, eta ikustera etorri zineen. Nire senide txiki oneetako bati egiña, Neuri egin zeunsten” (Mt 25 35-36.40)

“Bazkari naiz afari bat emotean, egin dei heartsuei, elbarrirei, erren eta itsuei; zorionekoa zara, orderik ezin emon izango deusue-ta” (Lk 14, 13-14)

“Agindu barri bat emoten deusuet: maite egizue alkar. Bai, Nik maite izan zaituedan lez, zuek ere maite egizue alkar.

Onetan ezagutuko dabe guztiak nire ikasleak zareena: alkar maite badozue” (Jn 13, 34-35)

“Norbaitek, ´nik Jainkoa maite dot´ esaten badau, eta bere senidea gorroto izan, guzurtia da; ikusten dauan senidea maite ez dauanak, ezin maitatu ikusten ez dauan Jainkoa” (I Jn 4, 19-21)

Bere itzaldi eta alkarrizketetan testu zoragarri oneek berez datorkoz aora bere lana azaldu eta legeztuteko. Batez be, Jesusen berbak Mateoren arabera. Baina ez bakarrik miin puntan erabili, goizetik gabera, Jaunaren berbak beteten saiatuko da munduko pobreen arteko pobreenekin. Ortxe dago, Ama Teresaren jatortasuna!

Ekintza guztietan beste edozeren gainetik maitasuna jarten dau gorengo. “Ekintzen neurria maitasunean eta poztasunean datza. Garrantzia ez dauko zenbat egin dogun, zenbat maitasun ipiñi izan dogun egiten doguzan gauzetan baino. Gauza txikiak maitasun aundiaz egitean dago koska”, errepikatzen dau bein eta barriro. Berarentzat pobreak ez dira bakarrik gosse edo ilten dagozan lepradunak eta sidaz jota bizi diranak, baita maitasun barik



aurkitzen dan edonor be. Au ei da gure mendebaleko gaitzik larriena. Zenbat anekdota jarten dituan olako kasuak frogatzeko. Adibidez, Londresen edo Estokolmon edo Holandan, zaarren egoitzetan, munduko aurrerapenik ez jake falta, bai, ostera, euren seme-alaben maitasuna eta xera. Gure artean be gauza bera bistan daukagu.

Baditu Teresak kritikari gogorrak be. “Munduko zauriak osatzen diarduala, baina ez pobretasunaren estrukturak errotik aldatzen”, aurpegira botaten deutsoenei, erantzungo deutse: “nik ez daukot orretarako astirik. Ori zeuok egin bear dozue. Nik neuk bitartean bide ertzetan jausita dagozanen zauriak osatzen jardungo dot. Egiten dodana itsasoko ur tanta bat baino gitxiago dana, badakit. Baina tantatxo ori barik, itsasoari zerbait faltako litzakio”.

Zelako erantzun polita eta humila! Emakume batena izan bear. Or ikusten da pertsona bakoitzaren paregabeko duintasuna eta maitasunez egindako ekintza txikien edertasuna!. Argi nabaritzen da onetan be Teresa Lisieuxkoaren eragiña.

2. Mistika

Ez dau entzun be nai, bere lana ONG edo beste alako ongintza-gizarte jarduera antzeko bat danik. Aldi berean mistika aundi bat be badogu Ama Teresa. Berak sortutako Kongregazio barriko kaperetan, Jesukristoren kurutzearen alboan, beti jarriko dau Jaunaren oiur lastimagarria “Egarri naz”, (Jn 19,28) kurutzean josita egoala. Jesus da bere zoramena. “Ezin dot egun bat bera be imajinau Jesus gabe” esango dau. “Nik egiten dodan guztia, Jesusgaitik egiten dot”. Bein amerikar periodista batek ikusten dau Ama Teresa lepradun baten zauriak sendatzen eta diñotso: “Nik neuk milioi dolargaitik be ez neuke ori egingo”. “Ba, neuk be ez!; goizeko Eukaristiaren ogi santuan Jesus ikusten dot, eta, egunean zear, pobreen arteko pobreenengan be Jesus ikusten dot”, izango da bere erantzuna



“Nire saririk ederrena Jesus maitatzea da”. “Jesus ezagutu, Jesus maitatu, Jesus serbidu. Orra nire bokazioa”. Teresa Lisieuxkoaren antzera esango dau: “Jesussek gure maitasunaren egarria dauko”. “Jesus da jarraitu bear dogun bidea. Bera iragarri bear dogun egia. Bera maitatu bear dogun maitasuna”. “Nai badozu besteak zugan Jesus ikustea, zeuk ikusi bear dozu leenengo Jesus besteengan”. Olako mila testu eder dakaz bere izkribuetan.

Naiz eta askotan bere burua itsas erdian galduta dabilen bateltxoaren antzera ikusi, ez dau Jaunarengan konfiantza galduko. Oso gogoko dau Bibliako testu eder au: “Ez bildurrik izan, neuk erosi zaitut. Neuk egin neutsun dei zure izenez eta neurea zara. Nire aurrean oso edergarri eta oso baliotsu zaran ezkerro, maite zaitut. Ez bildurrik izan, zeugaz nago-ta” (Is 43, 1.4)

Bere burua Jaunaren eskuetan “lapitz txikitxo bat” bezela ikusten dau. Jesusek jakingo dau beragaz zer idatzi. Teresa Lisieuxkoak lapitzaren ordezt, “pintzelaren” irudia erabilten dau, Jesusek berak nai dauna pintatzeko. Pentsamentu bera azpimarratzeko, beste konparazio bat be sarri erabilten dau Teresa Kalkutakoak: “argindarra eta kablea”. “Argindarra” Jesus da eta “kablea” gu. Gu bear gaitu Jaunak lagunurkoa maitatzeko orduan. Gure eskuetan dago, Jauna pertsonengana ailegatzea edo ez. Gure zain daukagu Jauna, humil eta apal, batez be, pobreengana eltzeko. “Munduko pertsona guztiak maite bear ditugu, guztiak maitasunaren gosez bizi dira-ta”.

Ez dira asko izango ogeigarren mendean, esaterako, Eukaristia eta otoitza eta pobreenganako egiazko maitasuna eta serbitzua, Teresa Kalkutakoaren sakontasunaz eta poztasunaz bizi izan dituan mistikoak.

Andoni Olea